

# KATTALIN MINER/ TURISTA KLASEA

## FITXA

### Biografia

[Kattalin Miner - Wikipedia, entziklopedia askea.](#)

**Euskal Herriko Unibertsitatean Kazetaritzan lizentziaduna eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Literatura Konparatuan masterduna da. Horrez gain, Gizon eta Emakumeen Berdintasuneko masterra egin zuen EHU.**

### Ekintzaile feminista

**Miner Medeak taldeko kidea da eta ekintzaile feminista aktiboa da bai kalean bai hedabide zein sare digitaletan. 2015ean Donostiako Udal Hauteskundeetan PlaZ! zerrendako hautagaia izan zen.**

**MEDEA: Plazandreok** taldean zeuden zenbait emakume gaztek Medeak talde donostiarra 2000. urtean sortu zuten. **Feminista** etiketarekin identifikatzeaz gain, bazterretan daudenenak ere bere egin dituzte: bollera erradikalak, transexualak, putak, beltzak... **Transfeminismoan** kokatu ziren. Beraien hausnarketa politikoak identitatea-, indarkeria **matxista-** eta gorputzen erregulazioari buruzkoak izan dira.

## BIDEOAK

### **▶ Kattalin Miner idazlearen liburu berria: 'Turista klasea'**

Konfinamenduan egina/ Ez du inongo nagusiakeria moralik

### **▶ Kattalin Minerrek 'Turista klasea' eleberria aurkeztu du**

- Pertsonaia inguruan duenaz konturatuko da
- Txilatarren eta bere artean zegoen amildegiaz ohartzen da( haiek ez baitute aukeratu berak dioen Paris arrazista eta klasista hori, ezinbestean baino)
- Pertsonaia oso leku ezberdinatean kokatuko du: batzutan zapaltzaile, bestetan konplize, tarteka azpiratu.

### AHOZ AHO

- Bidaiak parte mekanikoa dauka( antolakuntza, NAN hartu ote dut, tentsio hori. Horrelakoak egin dutenek ondo jasota dagoela diote)
- Bigarren plano da bidaian zehar gertatutakoak.
- Protagonistak nekea eta amorrua dauka (1.600km egun batean)
- Bidai hauetan hainbat elkartasun sare daude. Beste errealitate eta zapalkuntza batzurekin topo egiten du.
- Pertsonaia jarri nahi izan det kontraesanez beteta. Kontraesan teorikoak edota trenean ustezko yihadistari buruz ituenak GORPUZTU egiten dira. Gaur egungo kontraesanen rekopilazioa egiten saiatu da.
- Anomalia sentitzen da , adibidez, txuri bakarra denean Fresnesen eta anomalia sistema da.
- Ez dago mezurik, gauzak gertatzen dira eta norberak ikusiko du zerbait mugitzen dion.

## KATTALIN MINER/ TURISTA KLASEA

[Kattalin Miner, 'Turista klasea': "Genero-arauak haustea zenbat zigortzen den erakutsi nahi izan dut"](#)

- Muga motak: Hendaia Donosti, muga fisikoak (kartzela) . Bestelako mugak: klasea, generoa, arraza.
- Noiz naiz pribilegiatua, baldin banaiz, edo galdera bera zapaldua, konplize, neutroa?
- Kontraesanen aldekoa naiz. Eskerrak baditugun bestela peligerosoak litzateke.
- Pertsonaia nagusiak eta lagunak ez dute izenik, zergatik? Fokotik aldentzen zituen eta garrantzia kentzen zien eta anbiguitasuna mantentzeko. Euskal preso politikoak literaturan atera ditugunean nahiko markatuak egon dira generoz eta abarrez...
- Gure belaunaldiak asmatu beharko du nola egin galdera batzuk, hain markatuta dagoen gatazka honi buruz, nola egin berrirakurketa bat aurreko guztia zaborretara bota gabe, nola ez erori ya biziatuta dauden lengoaiaren tranpa horretan,
- Erakutsi nahi du protagonistaren genero identitatearen inguruan zenbateraino zigortzen den, bai modu biolento-fisikoan zein modu sutilean-erregulatzaileris gisa.
- Batek eraso homofoboak jasaten ditu, momentu erreakzionario batean gaude, inoiz joan ez den jarrera baten adierazle.
- Minaren inguruko hausnarketa nekearenaren ondoren etorri zen.
- Herri honetan badakigu zerbait mina egiteaz, mina jasotzeaz, baina ez bide emateaz min horri. Osatze bide bat planteatzen da eta onartzeaz ere.

[Emakume idazleen lanei buruzko kritikakGazte gara gazte](#)

- Irakurle talde feministak gidatzen ditu Gipuzkoan zehar. Batzuetan liburuen kritikak kritikatzera jolasten dute eta konturatzen dira zer nolakoak esaten ziren lehen emakumeen lanei buruz. Orain kritiketan ez direla hainbesteko astakeriak esaten uste du.

## KRITIKAK

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8234>

*Bidaia fisikoak, bidaia psikologikoak Aiora Sampedro / Berria, 2020-12-13*

**Moio** saiakera argitaratu eta urtebetera *Turista klasea* lana ekarri digu Kattalin Minerrek. Bi-biak ere LGTBIQ+ borrokaren inguruan egituratuta daudela uler daiteke, aurrekoa trans bizitzei lotua, hau preso politikoei, eta, zeharka, *queer* bizitzei. Era berean, aurreko lanetik desberdintzen duten hiru ezaugarri aipatu beharko banitu: borrokaren transbertsalitatea, bidaiaren metafora eta gorputzaren anibalentzia lirateke. **(MOIO hemengo trans baten tragedia kontatzen du. TURISTAn ordea, preso baten aitzakiaz??? transgenero txiletarrek Parisen bizi dutena, atentatuekin eta arabiarren paranoiarekin nahastuta)**

['Turista Klasea', Kattalin Miner | El Diario Vasco/Javier Rojo](#)

Besteak beste, identitateaz hitz egiten da, batez ere sexu identitateaz, baina identitatearen antolaketan parte hartzen duten beste osagai batzuk ahaztu gabe. Politikaz ere ematen dira iritziak nahiz-eta honetaz ez den oso kontu zehatzetan gelditzen narratzailea. Bestalde, protagonista kontzientea da kontraesanen artean mugitu behar dela, eta mundua marjinaziotik

## KATTALIN MINER/ TURISTA KLASEA

ikusten duela irudikatu nahi duen arren azken finean pribilegiatua dela, honek lotsa sentiarazten diola ere ematen duelarik.

['Turista klasea' nobela aurkeztu du Kattalin Minerrek | Kultura | Berria](#)

«Ipuin baten bueltan pentsatzen hasi nintzen. Euskal presoen dispertsioari buruzko errelato nagusian anekdota gisa gordetzen ditugun gauza asko zeudela pentsatu nuen, neuk egindako bidaien ardatz ere izan zirenak»

Hari horretatik tiraka, eskema bat egin zuen: bidaiak har zezakeen denbora neurtuz eta denbora lerro horretan sar zitezkeen kontuak zerrendatuz.

«Segituan konturatu nintzen horko pasarte eta bizipen asko artxibatuta zeudela nigan.

**Liburuak ez dira idazten ordenagailu aurrean jartzen garenean bakarrik;** are argiago ikusi dut hau idaztean»

«Konturatzen da urteetan zapalkuntza batean zentratu behar izan duela, eta beste kontraesan, zehar-lerro, borroka, erresistentzia, zapalkuntza batzuk gurutzatu zaizkiola denbora guztian. Orain du momentua, bide bat bukatzen ari denean, besteei begira jartzekoa»

**Errezeloa dauka, hala ere, berak nahi baino erosoagoa gertatuko zaiola liburua irakurleari.**

«Ez da interpelaziozko liburu bat, inolaz ere. Pertsonaia zintzoki ari da gertatu zaizkion gauzen inguruan gogoeta egiten»

Leire Lopez editoreak: Nobelako hari garrantzitsu bat ere nabarmendu du: beldurra. Mota guztietakoa. «Beldur inkoherenteak, ustez ditugun ideien kontrakoak; ia inori aitortuko ez genizkiokeenak; hotzean pentsatzen dugunaren eta barrutik ateratzen zaigunaren arteko aldea markatzen dutenak. Eta beldurra da eratzen gaituzten egiturak argien bistaratzen dituen mekanismoetako bat».

[Turista klasea. Irakurzale klubaren solasaldiari buruzko kronika – Barakaldo](#)

Arestian azaldu bezala, depresioa ere zertzelada batez agertzen den gaia dugu, samurtasun handiz urratutakoa, gainera. Beste tabu bat hautsi du Kattalinek 59. orrialdean dagoen pasadizo samur eta ederraren bitartez, zeinean protagonistak ohetik jaiki ezinean dabilen adiskidea maitekiro eta begirunez tratatzen duen.

Zenbaitetan istorioa **arrotza** iruditu arren, ukaezina da **gogoeta hunkigarriak** utzi dizkigula. Batez ere, protagonistaren **barne bidaiak** bere igarotze prozesuan murgildu baikaitu, bere burua damurik gabe onartzen zuen bitartean. Liburua, ez bairik gabe, **mamitsua da oso bere txikian**, eta guztiz **zirrargarria** begitandu zaigu ertzetako gizakiek (trans, ijito, arabiar, euskaldun eta presoak) nolako **elkartasuna** erakutsi dioten elkarri.

Zentzu horretan, **adiskidetasunari buruzko eleberri baten** aurrean gaudela esan daiteke, hainbat bidegurutze eta kointzidentziaren eraginez, sistemak zapal dutakoek elkar babestu eta maitatzen baitute, egindakoaz damutu barik, **Edith Piafek** bere kantari adierazten duen gisan

[Turista klasea | 111 Akademia](#)

Esango nuke, hain justu ere, apaltasun horretan datzala Minerren nobelen erakargarritasuna, estilo hurbilean eta aski zuzenean azaleratu eta ikusarazten baititu gizarteko hainbat esparrutan eztabaidagai behinenetakoak direnak: transexualitatea, presoaren egoera, gizarteak ontzat jotzen dituen parametroetatik kanpo daudenen bizipenak, etab.

## KATTALIN MINER/ TURISTA KLASEA

### AZPIMARRAK

Azken bidaia? Ez du gafatu nahi.

Edozein muga igarotzeak egun eragiten dizu estualdi hori

Faisaien uhartea kondominio txikiena munduan

Bidaia hauek aspalditik erlatibizatzen diuzte lehentasunak

II

Ohartu da zenbakiak ere ez dakizkiela frantsesez... eta ez dago ohituta gutxiago dela sentitzera.

Diferentzia markatea(beste) azenturik gabe beraieketorkinak ez zirealargi uztea.

Frantsesarekiko amorrua handitu.

Vharlie Ebdorenagatiksegurtasun neurriak estutu.

Ez izateko arrazista histerikoa

literalKI, figuratuKI, inozoKI????Kikirikiiii

Gure borrokak ez ditu alderagarriak izango, baina errepresio-sistemak bai.

III

Agustin eta Agustina LGTBI topaketako lagun txiletarrak

Haiek bizirauteko ilegalitateak egiten zituzten, paperik eta dirurik gabeko ilegalitateak.

IV

Nazka eman dio ume pedante perfektuak **horrela, oportetarako bidaian doan neskato adoleszenteak gurasoen kontra jaulkitzen dituen ozarkeriak narratzaileak unean sistema politiko-kartzelarioarekiko dituen pentsakizunen pareko ulertu daitezke.**

Ez du inoiz ulertu madrildarrak Hendaiara joatearen hori.

eskuan rotulKI bat zeramala

V

Montparnaseko estazioa, 2015eko atentatua

Izua gorputzean sartzen dizutenean ez da berehalakoan ateratzen

“Hemen ez, hau ez da gure gerra”

Mundu honetan polizia gehiago zagon terroristak baino, egidan kasu.

VI

Inoiz ez zion galdetu lagunari zergatik hartu zuen hartutako erabakia...zeren galdera horiek guztiek atzean mamu bat daramate.

Agustina: Actas Tupamaras: una experiencia de guerrilla urbana

VII

Mercek behin utzitako liburua zabaldu du berriro: Pedro Lamebelen POCO HOMBRE

Depresio diagnostikoa zuen. Marcelo aspaldi hil egin zen.

Lasai bollerita ez dizkidazu barrabilak garbitu beharko.

Marcel) Nik ez du iraultzarako balio pero no me hable del proletariado, porque ser pobre y maricon ez peor. Pedro Lamebe-Txile- 1986ko irailean: Hablo por mi diferencia.

Yo no voy a cambiar por el marxismo que me rechazó tantas veces.

VIII

## KATTALIN MINER/ TURISTA KLASEA

Fleurytik Fresnesera aldatu zuten. Europako gartzelarik handiena 5.000 preso.  
Erradikalizaazio islamiarra jasotzen du batik bat. Bera zen bisitarien artean zuri bakarra,  
IX

Mercek okerrera egin du

Generoa uzkiarekiko dugun harremanak markatzen du.

Orduan ulertu zion auzo arriskutsuarena. **emakumearen gorputzean sufrutuko du bortizkeria, Parisko kaleetan paseoan dabilela. Kartzelako lagunak ere, era berean, gorputzaren mugimendu askatasuna mugatua izango du kartzela barnean. Bestalde, gorputzekiko bortxa hori izango da lagun guztiak halabeharrez elkartuko dituen.**

Zein ote diren genero disidenteentzat leku seguruak.

Ez zegoen ohituta bere presentzia hutsa besteentzat mehatxuzkoa izan zitekeela pentsatzen.

X

Espetxealdia bizitzan izan dezakezun parentesi bat bezala ulertzen da.

Noski, beste edozertaz jarduten zuten azkenean, baina akaso horrengatik sentitzen zen apur bat lekuz kanpo lagunaren bisita-zirkuluan.

Besarkatu egin zuen Karima, eta eskua eman zien bi mutilei.

XI

gu ez gaitun problema, gu ez gaitun errentagarri, jada. Arabiarrek dira problema.

Arrain arrantza sistema egituratu zuen ???

Zuri abiatu Fake-a ???

XII

Zer moduz hago epaiketaren kontuarekin?

Laguna beti izan baita nahikoa pantera

DAMUA hitza atera zen

Agustina) Noizbait hitz egin beharko duzue, ba, MINAZ ere.

Oscar Wilderen hilobia bisitatu

Kontaiozu, arren, niri atzo kontatu ez zenidana, gustatuko zaio.

XIII

Epaiketaren mamua

Faisaien irla bisitatuko du.

irakurketan pixka bat sakontzean, zapalkuntza ugariak gurutzatzen asmatzeko egileak egin beharreko diskurtsoaren ariketa konplexuak testua aberasten du.

## GOGOETAK/GALDERAK

1. Besteen zapalkuntza egoerari erreparatzerakoan, neurtu behar izan zenituen idazlana egituratzeko orduan? Zenbat zapalkuntza kabitzen dira horrelako bidaia literario batean, “eramangarria” izan dadin irakurlearentzat?
2. Pertsonaia inguruan duenaz konturatuko da.--- Zilegi da norberak erabakitako betaurrekoekin begiratzea bizitza, dudarik gabe, eta, horren arira, beste hautu bat egin izan bazenu gehiago zentratuz “politika kartzelarioaren” inguruko gaietan, adibidez, zer irabazi eta zer galduko zukeen eleberri honek?

## KATTALIN MINER/ TURISTA KLASEA

3. Protagonistak nekea eta amorrua dauka (1.600km egun batean) -- Protagonistaren ezaugarri bi diren nekea eta amorrua ez lirateke gehiago presoarengan jarri behar? baina presoak bizitzaz hitz egin nahi du, ez gorrotoaz. Zergatik erabaki hau?
4. Bidai hauetan hainbat elkartasun sare daude.--- Bidaia hauek, sarritan, taldeka egin ohi dira baina zure protagonistak bakarka egiten du, nahiz eta gero elkartasun kontzeptua maiz agertzen den. Horrek arrazoiren bat du, ala horrela suertatzen delako ere erabaki duzu?
5. Pertsonaia jarri nahi izan det kontraesanez beteta— zaila al da erabakitzea kontraesanen kopurua pertsonaia batean, pertsonaia honetan, sinesgarria izan dadin? Zurean lortu duzulakoan nago.
6. *Erakutsi nahi du protagonistaren genero identitatearen inguruan zenbateraino zigortzen den, bai modu biolento-fisikoan zein modu sutilean-erregulatuzaile gisa* —Protagonista genero identitatearekin zigortzen da modu biolentoan zein modu sutilean, erregulazioaren bidez. Bakarkako planotik herri gisako planora pasatzen bagara, eskubideetan, kulturean, hizkuntzan, antzera gabiltza? Nik plano paralelo asko ikusten ditut norbanakoaren eta herri gisan. (*Ez zegoen ohituta bere presentzia hutsa besteentzat mehatxuzkoa izan zitekeela pentsatzen*)
7. *Faisaien uhartea kondominio txikiena munduan/Faisaien irla bisitatuko du.* Uhartearekin zer gogoeta duzu bueltaka, mugarena, bi estatuen zapalkuntzarena?
8. *Herri honetan badakigu zerbait mina egiteaz, mina jasotzeaz, baina ez bide emateaz min horri. Osatze bide bat planteatzen da eta onartzeaz ere.---Iraultzaz eta ideologiaz baino MINA onartzearen beharra aipatzen da. Zer litzateke OSATZE BIDE HORI, gatatzaren balizko konponbidean?*
9. *Errezeloa dauka, hala ere, berak nahi baino erosoagoa gertatuko zaiola liburua irakurleari— idazlanaren erosotasuna, irakurterreza izatea, estilo zuzena, hurbila oraindik ere nolabait zigortuta dagoela uste duzu gure literaturaren kanonetan, edo normaltasun seinale bat da?*
10. *Irakurle talde feministak gidatzen dituzu Gipuzkoan zehar eta batzuetan, irakurri dudanez, **liburuen kritikak kritikatzera jolasten duzue** eta konturatzen zarete zer nolakoak esaten ziren lehen emakumeen lanei buruz.---Egin dezagun ariketa hori liburu honetaz bota dizuten kritika baten inguruan, ondo iruditzen bazaizu: Iruditu zait kontakizun on bat osatzeko osagaiak dauzkala, baina **presaka idatzita** dagoela(*elkarrizketa batean horrela adierazi zenuen, modu impulsiboan idazten duzula eta editore lanak asko lagundu dizula*), istorioaren **garapenari mimo handirik jarri gabe**, batez ere **elkarrizketetan**. Pertsonaiak baino gehiago **estereotipoak** dira nobelan hitz egiten dutenak. "Batetik, migrantea eta langile klasekoa naizenez, berez, auzo honetan topatu beharko nuke nire burua" bezalako esaldiak aurkitzen ditugu barra-barra elkarrizketetan.*

*Besterik gabe, eskerrik asko gure artean egoteagatik.*

*Donostia 2022ko urtarrilaren 26an.*